



A m o r o t o k o U d a l a

Elexalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 05/04

2004KO MAIATZAREN 26AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko maiatzaren hogeita seian, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Ramon Abaroa Iturran
Bitor Mari Gabiola Leniz
Ainara Ikaran Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi

Idazkaria: César Gandarias Badiola

Bertaratu ez direnak:

Sorkunde Gabiola Zabala
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- UDAL HONETARAKO GARBITZAILE BATEN KONTRATAZIOA.-

Garbiketa lanak egiteko pertsona baten denboraldi baterako kontrataziorako eskaerak aurkezteko epea bukatuz gero, eta aurkeztutako eskaera bakarra ikusirik, Udalbatzak erabaki du:

Idoia Larruskain Zabala andrea kontratatzea udal eraikuntzen garbiketa lanak egiteko, ondorengo lan-baldintzapean:

- Denbora partzialerako kontratua: 20 ordu astean.
- Kontratua 2004ko uztailaren 1etik aurrera 2005ko ekainaren 30erarte.
- Soldata: EFAPEBAE-ren 5. maila.

2.- UDALTALDE 21 LEA ARTIBAI HITZARMENAREN ATXIKIPENA.-

Alkateak azaldu duenez, Rio de Janeiro (Brasil) 1992an egin zen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian, Agenda 21 estrategia orokorraren baliabide gisa onartu zen. EAEko udalerrietan Agenda 21 onartzea eta martxan jartzea Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia 2002-2020 delakoaren barruan definitzen ari den EAEko ingurumen-politikan lehentasuna duen helburu gisa definitu da.

Guzti honi lotuta, Ihobe eta Lea Artibaiko Amankomunazgoaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Udaltalde 21 Lea Artibai proiektua egiteko eta garatzeko, sinatu zen 2002ko uztailan. Hitzarmen hori sinatutakoek aukera eman diote Lea Ibarra Amankomunazgoko herriei hitzarmenari atxikitzeko.

Azaldutako guztia kontutan izanda Udalbatza Osoak, aho batez, erabaki du:

- 1) Amorotoko Udala Udaltalde 21 Lea Artibai Hitzarmenari atxikitzea.

- 2) Alkate andrea ahalmentzea atxikimena hau aurrera botatzeko behar diren pausuak emateko.

3.- ESKOLAKO PIANOARI BURUZKO AKORDUA.-

Idazkariak azaldu duenez, Amrotoko Eskolan dagoen pianoa ezin zela erabili ikusi ondoren, Eskolak Udalarari bertatik kentzeko eskaera egin zion. Eskaera hori kontutan izanda, herritarren artean dei bat luzatu zen ea norbait interesaturik egon ahal zen piano horretaz arduratzeko. Deiari erantzunez, Miren Tere Gabiola andrea agertu da interesatu bakarria bezala. Guzti hori kontutan hartuta, Udalbatza Osoak, aho batez, erabaki du:

- 1) Amrotoko Eskolan dagoen pianoa bertatik kentzea, bere egoera txarra dela eta ezin bait da erabili.
- 2) Miren Tere Gabiola andreari aukera ematea aipatutako piano bereganatzeko.

4.- 91/2004 FORU DEKRETUAREN BARRUAN DIRULAGUNTZA ESKATZEA BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI.-

Bizkaiko Foru Aldundiaren 91/2004 Foru Dekretuak Udalerrien Azpiegitura, Ekipamendu eta Zerbitzuetarako Planaren burutzapena 2004 urterako arautzen du. Udalbatzaren ustez, Amrotoko Udalerriko hiri gunean zerbitzu ezberdinen berrantolaketa eta ezarpenari buruzko proiektua aipatutako planaren helburuarekin bat dator. Proiektuak jasotzen duen ekintzaren aurrekontua 425.302,69 eurotako da.

Azaldutako guztia kontutan harturik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) 91/2004 Foru Dekretuari buruzko dirulaguntza eskatzea, Amrotoko Udalerriko hiri gunean zerbitzu ezberdinen berrantolaketa eta ezarpena aurrera eramateko.
- 2) Ekintza horren 425.302,69 eurotako aurrekontua onartzea.
- 3) Aipatutako lanak ukitutako ondasun eta eskubideen erabilgarritasuna kudeatzeko konpromisoa hartzea.
- 4) Amrotoko Udalaren aldetik dirulaguntza jasoko ez duen zatia finantzatzeko behar den kreditua gordetzeko konpromisoa hartzea.

5.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Learri, S.A.ren faktura, 23.886,14 euro.
- Canonen fakturak, 12,46 euro, 20,72 euro eta 2.773,83 euro.
- Bidein, S.L.ren faktura, 1.529,18 euro.
- Ekin, S.L.ren faktura, 50.792,83 euro.
- Hitzaren faktura, 67,28 euro.
- Jaioren faktura, 69,02 euro.
- Enma, S.L.ren faktura, 76,15 euro.
- Electricidad Milicua, S.L.ren faktura, 139,20 euro.
- Autokonponketak Lean, C.B.ren faktura, 632,97 euro.
- Lea Artibaiko Amankomunazgoari, 1.026 euro eta 1.282,50 euro.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamarrak eta laurdenak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.